

# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\*** 105n. Zenbakia Zezeilla/Otsaila  
1987



## **PANAMA'ko LURRALDEETAN**

- DARIEN BASO BALTZEAN
- LUR ABERATSAK, LANDU BARIK
- INDITARRAK ETA BALTZAK GOSEZ  
(GOSE-EGUNA)

## ARAZONAK

# MUNDUKO GOSEAREN AURKA

Zezeillean urte guztietan gogoratzen jaku, eleizetan, izparringietan eta ikus-irratian gosearen arazo larria.

Barru-barruan arazoa onetan dago: Munduan guztientzat janariak dagozala, baiña banaketea txarto egiten dala-ko, batzuk, asko, gosez bizi dirala.

Zergaitik ori?

Egia da izkillugintzan eralketa aundiak egiten dirana. Izkillugintzan egiten dan eralketa ori janariak sortzen eta banatzen egingo ba'litzake, arazoa geiago barik bideratuta legoke, baiña...

Baiña guk geure buruari eta arlo onetan daukagun erantzun-bearrari bagiratu bear dautsagu eta egia auxa da: Geienok aberatsak izan ez arren, gosez bizi diran orrein parean oso ondo bizi garala, eralketa ta gastu larregi egiten dogula eta gure laguntza arei emotera beartuta dagozela.

Orretarako aukera ederra eskintzen dauku otsail edo zezeil onek: Eleizara joaten garanok an daukagu laguntza emoteko aukerea, baiña beste bide batzuk artu nai izan ezkeru, banku-etxe guztietan artuko daukue gure emoitza, orretako idegita dauken diru-kontuan ezartekotan.

Bear ba'da itaun au egingo dogu: Eltzen ete da, gero, gure diru-laguntza gosez bizi diran arein eskuetara ala bidean galtzen ete da?

"Esku-Alkartuak" deritxon erakundea arduratzen da ekiñaldi onetan batzen dan dirua banatzeko eta erakunde onek eroaten dau laguntza bear dan lekura, ango agintariak bitartekotzat artu barik eta gaiñera dirua zertan erabilli dan barria be emoten dau.

"Eskua Alkartuak" erakundearen alegiña, gose diranai jaten emotea da izan, baiña ardurarik aundiena olako egoeran dagozan lurraldeetan bizi diranak aurreratzea da, orrelan euren buruak janaritzeko eurak naikoa izan daitezcan. Orretarako ekiñaldi asko eta ederrak egiten dira Ameriketan, Asia'n, Afrika'n, irabazbideak sortzeko, naiz lurrak emonkor biurtuta naiz alkargoak eta olako lanbideak sortuta. Sarritan bertan lanean diarduen misiolariak izaten dira aurrerapen orreik lortzeko eta dirua bear dan lez banatzeko zeregiña dauken laguntzailleak.

Emon dagigun ba egun edo ille onetan eta urte guztian kristiñau on batek emon bear dauan laguntza.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

### IPUIN-SARIKETA

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ezarrirako maikoak alkartu dira abenduaren 18'an euren epaia emoteko eta maiko guztien eritxiak batu-ondoren, auxa izan da artu daben erabagia:

- 1.º SARIA: 40.000 pezeta, IPUIN-ESKE lanari. Idazlea ONAINDIA'tar Santi.
- 2n. SARIA: 30.000 pezeta, NIRE GANBARAN AURKITUTAKOA lanari. Idazlea: PENADES'tar Josu.
- 3n. SARIA: 20.000 pezeta, LUKAS'EN ERAKUTSI ONA lanari. Idazlea: ERKIAGA'tar Eusebio.
- 4n. SARIA: 10.000 pezeta, GAUR TRINKATUA, BIAR IRAULTZAILLE lanari. Idazlea: LEJARTZA'tar Sebastian.

ZORIONAK!  
EUSKERAZALEAK

**EUSKALERRITIK MUNDURA BEGIRA****EUKADI: EAJ-EA**

Atzo izan ziran auteskundeak. Ta, gaur, beste askotan bezala asi naiz mundura begira, gizarteko azken-albisteak jaso naiean; baiña gaur, mundu guzian, ez dot Euzkadi besterik ikusten!

Idaztera noa. Odola dario, idazten asterakoan nere lumak; odola dau jario nere biotzak. Begien aurrean, zati-turik bait dakust neure Euzkadi!

Aspaldiko gaitza dau Euskalerrriak zatitan-puskatu-bear ori. Bai, beintzat, erriak agintaritzea burukide batzuen eskuetan utzi ezkoroztikoa. Badirudi, erri au, bere buru-jabetza iñoren eskuetan ez uzteko sortua izana dala. Edestiak erakusten dauskunez, burujabetza konfiantza geiegirekin besteren eskuetan utzi daun guztietan zatiketa jasan bear izan bait dau, erri onek, zigortzat. Orrela galdu doguz oso-osoa euskaldunak izan diran ainbeste lurralde zabal: kezkarik gabe agintaritzea burukide batzuen, eskuetan, —errege, jaun, konte ta dukeen eskuetan— uztearen erruz! Orregaitik bereizi ziran gure sei laterriak ere bata bestearengandik... Españi'ko eta Frantzi'ko erregeen onturrerako. "Divide et vincas", "banatu eizuz eta garaituko dozuz", izan da gure etsaien ikurra.

Baiñan nik, gaur, oraingo zatiketak gura dodaz aztertu. Altaguztiz, ez daigun aztu, Euzkadi'n Erriak agintaritzarik ezin daikela kezka aundirik gabe iñoren eskuetan utzi; Erria bera dala emen Agintari bakarra. Erri orren ordezkari ta morroi uts besterik ez dirala, emen, burukide guztiak.

**LENENGO ZATIKETA.**—"El Batua"ren asmaketa izan dogu oraingo lenen zatiketa: zugaitz-enborrean ziria lez, izkuntzaren soñean sartua! Ziriak egiten dauna egin dausku: Izkuntza zatitu. Baiña Euskalerrrian, "Euskeraren Errian", izkuntza zatitzea, Erria zatitzea da.

Zatiketa orren egilleak? Gure sozialista-komunistak. Euzkadi berri komunista bat eratzeko euskera berri bat gura eben. Ta lortu dabe Euskeraren ondamaena. Errua? Alderdi Jeltzalearena, eta onen ondorio izan dan Eusko-Jaurilaritzarena. Ez ordea Burukideena! Alderdi Jeltzalean ez da egiazko Burukiderik. "Erria", ots, Alderdiaren oiñarriko alderdikideak dira egiazko Burukideak. "Burukide" esaten yaken beste oietan, gaiñera, zenbatek dakite

euskeraz?, zenbat dira, erderaz egiten daben lez euskeraz ere, txukun itzegiteko gauza?, zer egin dabe, orain arte, beren euskera sakondu ta dotoretzeko?

Ez, oiek ezin daitezke errudun izan. Oiñarriko alderdikide euskaldunak dira errudunak. Nagikeriz, koldarkeriz, edo "pakearen" maitasunaz batzuek, eta beren burua ezkertiar eta "progresista" agertzearren beste batzuek, oiñarriko alderdikide euskaldunek, ez dabe egiazko eukera bakarra bear bezala babestu!

**BIGARREN ZATIKETA.**—Izkuntza zatitu ondorean Alderdi zatitu euskuen gure marxistek, Euzkadiko Ezker-rra sortuaz, eta gaztedia ugari, Alderdi berri ortara eramanaz. Euzkadi'ren zatiketa izan zan ura ere, Sabin ezker Alderdi Jeltzalea bait da gure Erriaren gogoa. Erri baten gogoa zatitzea berriz, ez al da Erria bera zatitzea? Alata-guztiz, baeban zatiketa arek, egiña izateko arrazoaia, Alderdi Jeltzalea Kristau-Demokrazien taldekoa dalarik, zearo marxi-lenindarra bait dogu Euzkadiko Ezkerra.

Alderdi berri au egin zan, gero, bi zati, bere erraietatik Herri Batasuna jaio zanean. Baeban zatiketa onek ere bere arrazoaia: taktika: borrok'era egoki bat aurkitu nai izatea, komunismoa garaille egiteko. Mao-Tse-Tung'ek erakutsi zuan "bat bitan banatzen dala". Bi alderdi oiek alkarren artean asarreturik ikusteak ez zaiazela atzipetu, "zaticetak, itxura utsezkoa ez baiña egiazkoa izan bear dau bâ" Mao'k berak erakutsi ebanaz. Orregaitik, zatiketa oietatik sortzen diran alderdikideek ez dabe jakiten, burukide izan ezik, bi alderdiak, egiaz, bat bakarra dirala.

**IRUGARREN ZATIKETA.**—Eusko Alkartasunaren jaiotza. Zatiketa onen arrazoaia? Ez dau arrazoirik; alderdi berri onen eta lengo EAJ zarraren pentsaera berdin berdiña bait da! EAJ'ren altzoan bazan zatiketa baterako, arrazoaia, garrantzi aundiko auzietan, aborto edo aurgaltzearenean adibidez, EAJ'ak ez bait zuan kristauki jokatu. Eta, EAJ'k eta EA'k, etika-kristauari-buruzko arazoetan ez ba dabe jokaeraz aldatzen..., ¡bearrezkoa izango da Alderdi berri baten sorketa! Baiña, oraingo zatiketa onek, ez dau batere, egiña izateko, arrazoirik izan.

Zatiketa ontan galtzaillea? Euzkadi. Irabazlea? Españizaleak. Errua norena? Bi alderdietako "base" edo "oiñarrikideena". Ez dabe jakin, buruzagien aurka bearezkoa ba'zan, Alderdiaren batasuna bear bezala babes-

## JAKINGARRIAK

ten. Okerragoa dana, zatitu egin dira beraiek ere, eta aietatik asko "pertsonalismua" edo giza-maitakeri ustela beste arrazoirik gabe.

Ondamen ontatiko irten-bidea ere oiñarriko alderdiki-deetan dogu. Bi alderdiko oiñarri-jendeak konpondu bear dau okerkeri au. Odoletan egon da Euzkadi berrogei urtez Franko'ren ankapean. Negarrez egon bear al dau orain? Zer politika bideetan zabiltzan gaurko burukide asko, Franko'ren denboretan? Zer lan egin eben orduan Euskadi'ren alde?

Ni ez naz etorri-berrien etsai. Ondo etorriak bitez, baiñan ez Sabin'en Alderdia pentsaeraz aldatzera, edo bi pusketan zatitzera, etorri ba'dira.

TA ORAIN, ZER?—Nik ez dot emen esango burukide au errudun eta beste ori errugabea danik. Igaroak ez nau arduratzen; etorkizuna zait ajola. Eta, burukideei, Alderdia burukideek baiño lenago dala esan gura dautset. Burukideak, batasunaren egille bear daula izan; ori egiteko gai ez ba'da, edo, buruzagitza berak utzi bear daula, edo, ori egiten ez ba'dau, buruzagitzatik kendua izan bear daula.

Gaurko burukideak berriz, ez dira batasuna egiteko gauza; alderantziz, beraiek ala nai edo ala nai ez, gorroto-sortzaille dira, zatiketaren egille ta adierazle: "signum contradictionis".

Aolku bat emango neuskioe nik: "Jerarka" izatez utzi, eta "profeta" izaten asteko: agintzeaz utzi eta ereintzan asteko. Edozein erakundetan jerarkia baiño garrantzi geiagokoa da profetaritza. Edozeiñek balio dau jerarkirako, adimen motzekoa ez ba'da beintzat. Ez dau edozeiñek balio, jende ooren aurrean profeta izateko.

Tekniko onez inguratutik, Alderdi-barruan edo Eusko-Jaurlaritzan agintzen asteko gai diran alderdikide asko ditu Sabin'en Alderdiak, baiña gaur, batez ere, Alderdiak eta Euzkadi'k profeta trebe yayo kementsuak bear dabez.

Israel'ko Erria ez zuten, ez dabe, mendeak zear ainbeste zigorketen azpian jerarki-gizonek salbatu, profetek baik. Israel'ko jerarka'k, erregeengandik asita Anas eta Kaifas Apaiz Nagusietaraiño, argalak eta geldoak izan ziran geienetan, eta baita okerrak eta gaiztoak maiz aski ere. Profetak izan dauz Israel'ek, Palestina'ko urietan len, mundu zabaleko sinagogetan gaur, oiñarri, eusle, babesle ta gidari bakarrak.

Gure artean ere, uko egin dio Herri Batasunak jerarkian sartzeari, eta bere indar guztiak proletaritzara jaurtiaz, bereganuntz darama, astiro-astiro, gure gaztedia. Ez dira txantxetako gauza, EE-HB alderdi bat bikoitzak jaso (dauzan) 323.162 autarkiak. Jende oiek, eta beren aurtarkia alderdi españiarrei eman dautsoen beste 352.924 oiek Sabin'en pentsabidera ekartzeko, ez al dau Euzkadi'k profeta jatorrik izango?

Or dozue, gaurkoz, EAJ ta EA'ko burukideok, Euzkadi maite ba'dozue, Euzkadi'ren alde lan egiteko modu bakarra. "Vinculum caritatis", "alka-maitasunaren sendogarri" izan zaitekeze, ori egiñaz, orain "signum contradictionis" zarienok.

Erne EAJ'ko eta EA'ko "base" edo oiñarri-jendeak! zuen eskuetan bait dago, azken unean, auzi zikin onen garbikutza.

LATIEGI'tar BIXENTE



Gosearen eguna: Peru'ko inditarrak.

## UNAMUNO, BAI? UNAMUNO, EZ?

Jaio zanetik eun urte igaz bete dirala-ta, gure arteko izparringi ta aldazkari guztietan dantzan darabilkigu Unamuno'ren izena. Baiñan, batere arrazoirik gabe ere, maiz topatuko dozu edozein motako idazkietan gure Mikel Unamuno.

**UNAMUNO'REN ARROKERIA.**—Bizi zanean, aren leiarik audiena bere burua jendeen artean ezaguna egitea izan zan: Ilda ondorean ere jendeen oroimenean bizirik irautea. Ezpairik gabe esan bearco dogu, orain artean beintzat lortu daula bere guraria. Geroago, emendik eun, berreun, urtera orrela izango dan ez dakit; baiñan... ezetz, uste dot: ez dala ain aipatua izango.

Ezagutzen dot nik Unamuno'ren lei ura ederto adierazten daun gertakizun bat. Egiazkoa dan edo ez, ez neuskizu ziur esango, ori kontatu eustan adiskideak ez bait daust konfiantza geiegirik merezi. Altagutziz, egiazko gertari, edo parabola uts, adiskide arek esan eustana oso jakingarria dalako ustean bir-esango dautsut nik zuri. Entzun:

Ikerketa-lanean ari ziran, Santimamiñe'ko leizean Eguren, Barandiaran eta Arantzadi'tar Telespor, bi aien eta gero Euzkadi'n antropologiaz arduratu diran guztien egiazko Maixu Nagusia.

Jai-egun batez, leizeko lanak utzita, Gernika'ko jatetxe batera jetxi ziran irurak, eta an... Unamuno'tar Mikel aurkitu eben bazkaltzen!

Arantzadi Unamuno'ren lengusua zan; eta bildur aundia omen eutsan onek, Unamuno'k, bera baiño askoz jakintsuagoa ta baita izketalari yayoagoa ere zala bazekialako. Gaiñera oso atsegin izaten omen yakon ari, Arantzadi'ri, Unamuno zirikatzea! Jende tartean ere, "gazte gintzazanean —esaten omen eban—, Telesforo bere lengusua zuzendu eiten bazkal-osteko gozokiak uzten ibiltzen zan Mikel; orain berriz, ni nozue Mikel zuzendu daiten otorduetako gozokiak uzten dabillena".

Gernika'ko egun artan, "orra or Mikel neure lengusua, —esan omen eutsen bere lagunei—, ta arenganuntz jo omen eban zuzen. Ta, Mikel'ek idatzi-berria eban idatzi bat sakeletik aterata, "Mutil: zer dala-ta idazten dituk ik orrelako geldokeriak"?—, itaundu omen eutsan. Ta Unamuno'k erantzun: "Entzun eidak, Telespor: Gaztetan, ni

Josulagunen ikastetxean abesbatzakoa izan nintzala bada-kik. Ez uan ordea iñor Unamuno'rik an bazanik ere oartzten. Baiña bein batean, elizkizun dotore batean abesten ari gintzazala, "oillar" bat jaurti nian nik, ("solté un gallo"), eta orduan bai, orduan ospetsu egin zuan Unamuno, eta egun guztian, ikas-urte guztian eta gero ere denboretan eta denboretan mundu guztiaren ezpaiñetan ibilli zuan UNAMUNO'REN oillarra. Jendeak itzaz itzegitea ta ire burua ospetsu egitea nai ba'dok, Telespor, oillar asko jaurti bearco dituk"

Berealaxe emango dautsut Unamuno'ren arrokeri neurribageari-buruz Urkixo'tar Juli'k, emen anai-arteko guda nazkagarri ura amaituta bereala, "La Voz de España"n Artetxe'tar Joseba'ri egindako azalpen jakingarri bat. Aurretik ordea ainbeste-aiñako goratzarrerik Unamuno'tar Mikel'ek merezi daun edo ez aztertu gura neuke labur.

**UNAMUNO ZERGAITIK AIN AITATUA?**—Unamuno modan dago. Unamuno baiño geiago, gaur, "ezkertiar izatea" dagoala modan, esango neuke nik. Ainbeste aipu eta ainbeste goratzarre jasoko ete leuke gaur Unamuno'k, jainkogabea izan bearrean, Aita "Olaso" edo "Aitzol" bezala, abade zintzo bat izan balitz?

Baiñan..., "ezkertiar-agertu-nai" ori dalako, emen, Unamuno'ren maitale, Unamuno'ren ikasle ta miresle agertzen ez dana, ez-jakintzat izango da artua, "atzeratua" izendatuko dau edozeiñek, eta "karka" bezala izango da erabillia.

Orregaitik, Unamuno, idazten asten dan guztiak aipatu gura dau. Aipatu, ta aintzatu ta gorestu! Nor dogu gaur Euskalerrian Unamuno'ri aurka egitera ausartzen dana?

Oro da Unamuno'rentzat goratzarre! Unamuno, "maixua" da, "maixu gurena"; "filosofilaria" da, "gure" filosofilaria, goien mailleko "pentsalaria". Mundu guzia Unamunori begira omen daukagu!

Unamuno filosofilari? Mundua Unamuno'ri begira? Ori diñoenek beintzat, ez dakite ezer askorik ez filosofilari-buruz ez munduari-buruz!

## EZTABAIDA

UNAMUNO EZ ZAN KRISTAUA.—Apaizek ere, Unamuno goratzeko artzen dabe luma, Unamuno'z idazten asten diranean, Unamuno *kristau egiteko* gaiñera! Unamuno berriz, Unamuno idazlea, ez zan sekulan izan kristaua. Erlijioari-buruzko gaietan, Unamuno, inmanentista izan zan, eta jainkogabea.

Mantxa'ko Don Kixote'k bere izate guztia Zerban-tes'en buru-barnean bakarrik daun bezala, Jainkoak ere, Jainkoagan pentsatzen daben gizakumeen buru-barruan bakarrik dau bere izate guzia. Orixe ain zuzen erakusten dau "inmanentismo" edo "bernekitasun" esan oi zaion pentsaerak: Erlijioaren izaki guztiak, "barnekiak" dirala, "adimenaren-barne" bakerreko izakiak. Mamuak lez, adimenetik kanpora ezer ez dirala. Jainkoa, gizakumearen sorkaria, asmakizuna, dala. Gizonaren asmakizun utsa; ezer ez, besterik! Orregaitik izan zan jainkorik-gabea, oso-soan "ateo", gure Mikel Unamuno'tarra.

Sinismena "yo creo a Dios" esatea zala, izan eban Unamuno'k bere erlijio guztiaren muiña. Baiña, berak argi aitortzen daun lez, gaztelerazko "yo creo" ori ez da "creer" aditzaren era bat, "crear" aditzarena baizik, "Jainkoa egiten dot" esan nai dau, ez "Jainkoa sinisten dot". Ez yako beraz iñori Unamuno kristau izan zala esaten edo idazten ibiltzerik zillegi.

Ez dakit zergaitik, apaiz guztien leia izan oi da, Unamuno eta Unamuno'ren antzeko beste pentsalari sinismenik-gabeko guztiak, ilda ondorean, *kristau egin nai* izate ori. Ondo ez dagoan gauza! Gizakumeari bear yako begirune geixago. Utzi dagiogun pakean, bere sinismenik-gabetasunean, sekulan sinisle izan nai ez ebanari. Guk ez dogu aren epaiketan sartu bearrik. Jainkoa izango dau epaile. Ta Jainkoa... gu baiño milla aldiz errukitsuagoa da zorionez.

Unamuno'ren etsaia naizela? Ez!

Filosofi-ikasle nintzalarik, gudatekoan irakurri neban Unamuno'ren idazti guztiak, eta gero ere irakurriak dodaz gudaz gero argitaratu ziran guztiak ere; geienak beintzat. Baiña ez ninduan Unamuno'k lilluratu. Berealaxe oartu nintzan Unamuno, filosofilari lez, oso gauza urria, motxa, ta batere berozkotasun gabea zala. Altaguztiz, oartu nintzan, baita're, Unamuno'k gure gazte ikasleen artean izugarritzko gaitza egin eikeala; eta, egin daula ere, gero ikusi aal izan dot: ikaragarritzko gaitza!

UNAMUNO IDAZLE BIKAIÑA.—Baiña Unamuno filosofilari lez oso kaxkarra dala ba'diñot ere, pozik eta

zalantzarik gabe aitortuko dot, elertilari edo literato lez, aundia, txit aundia, izan zala Unamuno. Orretzek, ain zuzen, egiten dau ain arriskugarri gure Mikel: era ederean, era politean, era bikaiñean, era lilluragarrian idazten daulako, irakurle zorabiatua oartzeke, animaren barne-muiñetaraiño ixurtzen bait dautso sinisgabetasunaren edena.

Unamuno lenen-mailleko idazlea —nere ustez Ortega y Gasset eta Baroja baiño obea—, dala aitortuta ere, galde bat egin nai dautset, edozein aitzakirekin, gaiari ondo etorri edo etorri ez, Unamuno ainbeste aipatzearen zale diranei:

Idazle ona izan zalako, ala idazle *ona eta gaiñera ezkertiarra* izan zalako, ainbeste goratzen eta ain sarritan aipatzen dabe Unamuno?

Unamuno'ren aldiko eta ura bezain idazle yayoa izan zan Maeztu'tar Erramir, Gustab margolari yayoaren anaia. Euskotarra gaiñera; Gazteiz'koa. Erdi-anarkista-erdi-komunista, ezkertiarra beintzat, ezkertiar sutsua, izan zan bitartean, izparringietan, aldizkarietan, liburuetan, garai artako idazle danek aipatzen eta goratzen eben Erramir Maeztu'tarra. Gero ordea, liberaltasuna-zear, eskubiko ertzera igaro zanean, illik bezala gelditu zan mundu guztiarentzat. Maeztu ezkertiarra bezain idazle bikaiña da Maeztu eskubitarra; baiñan arrezkero, ez dau iñork ezertarako aren izenik aipatzen.

Maeztu fatxista izan zala, agian esango daustazu. Ta... zer? Ez zuan orregaitik idazle yayo ta pentsalari sakon izaterik utzi. Gaiñera, Maeztu ez zala fatxizta izan, erantzungo dautsut nik; eskubitarra ta españa-zalea, bai; baiñan fatxista, ez.

Aitzol aipatu dogu len. Unamuno bezain idazle yayoa, idazle bikaiña, dogu Aitzol bera. Eta Unamuno'k baiño geiago idatzi zuan gaiñera! (Laister agertuko dira, liburu mardul ugarietan bere idazlan guztiak). Elertiari dagokionez ez daikeo ezertan Aitzol'ek Unamuno'ri bildurrik ez lotsarik. Ala're, Apaiza eta eusko-abertzalea zan-da...! ikusiko dogu, zenbaitek artzen daben benetan geure Aitzol bikain jatorraren lana! Gure jende ikasia kristau izatez lotsatu egiten bait da! Naiz arrano itxurak egin ontza geldo batzuk besterik ez diran España'ko "jakintsuen" aurrean euskotar abertzale bezala agertzeaz ere lotsatu egiten diran gure jende dotoreak! Jaso beiez gora begiak eta ikusi beie "ontzek esan daikeenari jaramonik egin gabe, egunero nola agertzen dan Eguzkia dizdiratsu zeruan". Polita, esa-

kizun auxe; ez da ala? Norena dan? Unamuno'rena? Ez. Ars'eko Apaiz Donearena!

Unamuno filosofilari lez, kristaua izan balitz ez ebalaz ezer berririk idatziko-ta, ez ebalaz aipatzerik ere merezi izango, esan oi daust batek baiño geiagok; "gauza berrien billa" joaten omen da jendea Unamuno irakurtzera!

Gauza berrien billa? Ta, Unamuno'ngana? Toki onera!!! Ori esan oi daustenek ez dabe seguruaski sekulan Unamuno'rik irakurri; eta irakurri ba'dabe, eta an aurkitu dabena "gauza berria" iruditu ba'yake, ez dabe filosofiaz eta munduko kulturaz ezer askorik ezagutzen!

UNAMUNO'K EZ BERRIRIK EZ BERERIK.— Unamuno'k ez dau ezer *berririk*; eztare ezertxo *bererik*. Filosofiaz Unamuno'k diñon guzia, dana-dana, Hegel, Feuerbach, Kierkegaard, Husserl, Heidegger, eta, nola ez? pentsalari inmanentisten liburuetan aurkituko dozu. Eta, ¡Loisy apaiz "modernistaren" liburuetan!

Ori bai, besteek diñoena bakarrik diño Unamuno'k, baiña beste aiek danak baiño era ulerterrezagoan, politagoan eta askoz atsegiñagoan. Baiñan berririk eta bererik..., ezer ez!

Unamuno kristau izan balitz ez ebalaz irakurtzerik merizi izango...! Ori diñonak beintzat ez dau Unamunorik irakurri! Unamuno'ren literatura iñoiz baiño bikaiñagoa Kristautasunaren gaietaz itzegiten asten danean bait da! Orduan da benetan atsegiña, polita, ederra, dotorea, unki-

garria, eta lenen mailleko elertilaria. Unamuno'k, pitxirik onenak, kristautasunaren altxorretik artuak dauz! Kontuz ordea! Ez aztu Unamuno'k kristautasuneko egi eta izakietaz, Kristoz beraz, mintzatzen danean, gauza oiek danak, Kristo bera, gizakumeek sortu eta gizakumeen buru-barneetan bakarrik izatea daben gauzak dirala. Kristo Unamuno'k sortzen daun izate-dun bat dala, eta Unamuno'ren adimenetik kanpora ezer ez dala.

Bai; badaki Unamuno'k, orain dala bi milla urte Nazaret'eko Jesus bat izan zala; baiña Jesus ura ez da Unamuno'ren Kristo. Alonso Quixano zeritzan norbait izan omen zan Zerbantes'en denboretan Mantxa'ko errixka batean. Baiña ura ez da Zerbantes'ek eman zigun Mantxa'ko Don Kixote. "El Ingenioso Hidalgo Don Quixote de la Mancha", oso-osoan, Zerbantes'en sorkaria da. Era berean, Nazaret'eko Jesus ura ez da, Unamuno'ren iritziz, kristau guztiok gurtzen dogun eta Unamuno'k miresten daun Kristo. Unamuno'ren ustez, apika Nazaret'eko Jesus artaz iñork ezer badakian. Ez dautso ajolik, —oiu egingo dau Unamuno'k—; ez dautso ajolik, neure Kristo neuk neure adimenaren altzoan eta neure naimenaren sabelean sortzen dodan mirarizko izaki bat besterik ez bait da. Neure sinismenak, izatea damaio Kristori. Neure sinismenaz landa, neure Kristo, ezer ez da! Zuen Kristo ere, zuen sinismenaz landa, ¡ezer eza da!

Orixe dozu, irakurle, Unamuno'ren erlijio guzia.

LATIEGI'TAR BIXENTE



## SORGIÑAK (I)

Len, antziña barik, jendeak “sorgiñetan” sinisten eban, eta guk gaur barre egiten dogu.

Baiña guk orain “Ovni” eta “Platillos volantes” eta antzekoetan sinisten dogu, eta ez dogu barrerik egiten.

\* \* \*

Ona emen, 1590 urtean.

Kalahorrako inkisidore Avellaneda Jaunak, sorgin-riari buruz, Nafarroako Kondestable zan Iñigo Velasco Jaunari egindako eskutitza.

Eskutitz osoa emen jartzea oso luzea eta nastua izan daiteke, eta orregatik bertako gauza garrantzitsuenak bakarrik agertuko dodaz.

“Zuk, Jauna, sorgiñen arazo onetan emen, Naparroan, zer jazoten dan jakin gura dozun ezker, zure agindua beteten aleginduko naz.

Nafarroako ipar-aldeko mendietan dagoen Salazar lurraldean sorgin asko aurkitu dodaz, eta eurak autortu deuste: leio eta etxetako ke-zuloetatik urten, eta sorgiñen batzarretara joaten dirala, an deabruagaz alkartzeko...

Ni, au ezin sinistuz, nire sekretarioa eta beste lagun batzuk, eta ogei soldadu artuta, sorgin baten etxera joan nintzan...

Eta gure begien aurrean emakume sorgiñak bere gorputza gantzukari edo unguentoz igurtzi eban, eta lurretik oso gora egoan leio batera igon zan... Azpian atx andi bat dago. Katu bat andik jausiko balitz milla zati egingo litzake.

Bada, sorgin onek deabruari dei egin, eta etorri jakon, eta onek leiotik atx-ganera minik artu barik jatsi eban.

Ori ikusi ebanean, arrituta, soldadu batek “Jesus” esan, eta “aitaren” egiten asi zan, eta bapatean sorgiña gure begietatik ezkutatu zan.

Gero Avellaneda Jaunak sorgiñak zelan egiten dabezan batzarrak kontatzen dau.

“Lenengo Sorgiñak euren batzarretan Jaungoiko gure Jauna, eta bere ama, eta zeruko santu guztiak ukatu egin bear dabez, deabru Satanaz jaun eta jabetzat artuz.

Eta deabruak ukatze onen ordeaz dirua ugari eta atsegiñak eskaintzen deutsez sorgiñai...

Gero egaz egiteko gorputzaren ezker aldea zelan igurtzi bear daben erakusten deutse, eta onela edozein tokitara egaz joan daitezkez...

Emakume sorgin batek beste pertsona bat sorgindu gura dauenean, lenengo deabruarengana eroaten dau...

Deabrua aker baltz andi baten antzekoa da... Eta sorgiñak akerrari esaten deutso:

Nik, Jauna, emakume au zure legera ekarri dot, eta zure menpeko izan gura dau, zure zerbitzari izateko...

Eta deabruak erantzuten deutso: Neu naz munduko jabea, eta neure legea da onena. Nire aginduak beteten ba’doz diru ugari emongo deustut, eta atsegiñak be ugari izango dozuz.

Orduan sorgin-gaiak esku ezker bular ganera eroan, eta ezkerreko belaunaz lurra jota, akerrari gorputzeko atalik zikiñenean mosu bat emoten deutso, eta gero gurtu-adoratu egiten dau.

Gero akerragaz batera dantzan egiten dau eta atsegiña artzen dabe... Deabruak dantza laguntzat gizonai emakumeak, eta emakumeai gizonak emoten deutsez. Baiña dantzariak dantzari oneik ez dira egiazko gizon emakumeak, deabru itxura artzen daben gorputzak baiño...

Eta guzti au jakin begi, Jauna, egi-egia dala.

Gero deabruak esaten deutse:

Etxera joaten zarienean al dozuezan txarkeri guztiak egin bear dozuez; gizon, emakume eta umeak il, gari soloak ondatu, ganaduak akabatu...



Eta txarkeri aundiagoak egiten dabezanai deabruak sari andiagoa emoten deutse.

Deabruaz batzarrak egiteko eguna barikua izaten da, gaueko amabietan. Oillarrak bere kantua jotzen dauanean etxera itzultzen dira.

Batzar oneitan galerazota dauke batez be “Jesús” esatea, baita “aitaren” egitea be...

Euren kalteak egiteko igurtzikariak umeen biotzakaz egiten dabez. Orregatik ilten dabez umeak, eta batzuetan ilda lurpean ba dagoz be, lurpetik atera egiten dabez biotzak kentzeko.

Eta au be egi-egia da, Jauna.

Baita esaten dabe, amak umeari goizean “aitaren” egin ba deutso, ezin deusala sorgiñak ume orreri kalterik egin...

Baiña goizean “aitaren” egindako ume bat deabruak aurkitzen ba dau, sorgiñari esaten deutso: alako etxean “aitaren” egin bako ume bat dago, joan zaitez eta il egi-zu... Baiña umea dagoan gelan kurutze bat edo Ama Birjiñaren irudi bat ba’lego, edo ur bedeinkatuaz bustia, orduan sorgiñak ezin dau kalterik egin...

Baita esaten dabe: solo baten kurutze bat ba dago, an ezin dauala sorgiñak kalterik egin...

Eta au be egi-egia da, bada gizon batek neuri esan eus-tan urtero sorgiñak bere soloan kalte andiak egiten ebezala, ekatxa sortu eta laiñoetatik arria botaz gariak ondatu egiten ebezala... baiña abarrez egindako kurutze bat solo aretan ipiñi eban ezkerro, ez deutsoela sorgiñak berari gei-go kalterik egin”.

(Jarraituko dau)  
GOIKOETXEA IÑAKI



## SORCIÑAK

## EUSKAL AGAKA NOK ASMATUA DA?

Ez da, zuk alan uste izan arren, garrantzi bakoa euskal “Agaka”, gure artean euren buruak jakituntzat orraztu oi dabezanak be, nok asmatu eban ez jakitea. Gauzak euren ardatzetik kanpo ibilli ez daitezkan, ostera, egoki jatzu gauzen alderdiok be aintzat artu ta buru-muiñean leku pizkat euroi egokitzea. Nok asmatu ete eban, ba, gaur ain pozik darabilgun idazkera au? Gitxi konturatuko ziran, ziur asko, gizaseme azkar ortaz. Ezta neu be “Euskal Literatura”-ren V’garren alea osotzerakoan; ez neban beintzat an sartu Pedro Antonio Ormaetxea ta Ortuzar’en izenik. Eta onexek asmatua da, askok oraiñarte Arana-Goiri’k antolatua dala uste daben euskal Agaka dalakoa.

Apaiz jator onek naikoa idatzi eban erderaz ta euskeraz. Erderaz Bilbo’ko egunkari baten beñik-bein idazten eban; berak dirausku: “Ume erderaz baño ez dakienai erderaz irakasten dautsan lez, ume euskeraz baño ez dakienai, euskeraz irakatsi bear leuskioe, ume euskalduna ta erdelduna bitzuetakoak bardin izan daitzen. Gurari orrek neure barruan nituala, iruren artean euki genduan ezbaia Bilboko egunari baten, 1888’an. Euskeldun oraingo aintzat dagozan batzuk baño euskera maiteago eban batek, agertu eban irastalde (artikulu) bat, adierazoteko *c* (mahometarren igetargi erdian atza daukana) eta *q* euskeraz bear dirala. Ostera beste batek eta nik euren ordeaz z eta *k* oitu bear geunkezala”.

Erderaz erataua izan zan eztabaida au, eta Bizkaiko Aldundiaren liburutegiko artxibuan daukezan urte areitako egunerokoak ikusi ta aztertu zeinkez. Idazle onek esana ez eben ontzat artu, eta orduan be gaur oraindik egin daroena; zuzendariak “zarratu euskuzan ateak” —diño Ormaetxea’k— eta nire gurariak ito ziran! Alan be, orretan ziarduan Sabino Arana’ri bialdu eutsozan bere lan zokoratuak.

Zek eroan ete eban Ormaetxea Agaka au egitera? Beronek dirausku argi ta garbi. Dotriñea erakutsi bear eutsen umeai, eta orretan ziarduala ikusi eban batzuk atzeriak egozala eta bat bera be ez berak nai eban bestean. Eta “gatx ori nundik etorren jakin gurarik, ori etorrela ikusi neban euskeraz lenengotik gorako guztia ez ikastetik. Eta orduan, 1894’ko irailaren 26’an, artu neban asmoa ikastegitxo bat egiteko”. Ain zuzen be, bere eginkizunak obeto bete bere mendekoak —parroku zan garai aretan— zerua errezago irabazi egien. Eta ikastegi au, eleizarena izango zana, umetxoen eta borondateen laguntzaz jaso zan. “Jai-egunetako ikastegitxoa” 1895’ko zemendian edegi eban, Amoroto eritxoan.

Era guztietako umeak doakioz ikastolara, eta mordo-ka. Baiña, zelako eskola-maillakoak? “Batak ez daki irakurten —diño—, besteak entzun egoan lekuan enzun esate-

n... Orrela jarraituteari ez neritxon, irakurten ez dakianari erakustea, usten dan baño bear-une gatxagoa dalako. Ortik artu neban asmoa dana euskeraz irakurten erakusteko. Gurari ori betetako bear nituan liburu euskerazkoak, erderazkoak erabilli nituan onenak be ez ebelako euskerea ondo irakurten. Nundik ekarri neikez?— esan neban”.

Erderaz ba-zan olakorik. *Abecedario* esaten eutsoen orri. Baiña euskeraz erakutsi nai eutsen umetxoai, lenengotik gora guztia, “sasitik madaririk ezin atara leikelako”. Ba eban eragozpenik bidean, *c* ta *q* zirala-ta batez be. Euskeraz ikastea guztiz gatxa zala iñoen gaztelarrak, baiña “naste ori sinistuten daben euskelduna tentela edo gaiztoa da” —diño—. Zergaitik? Errazoi bitxia: Euskeratik erderara beste bide dagoalako erderatik euskerara.

Nagikeriak dakarskuz sarri olako itzak ezpain gaiñera. Erdera erreza ta euskera gatxa? Iguingarri jako au Ormaetxea’ri. Eta idazten dauku: “Geure begiakaz ikusten dogunak erakusten dauku, euskerea gatxa ezdana. Ikastegi barik, areriaz inguraturik, eta danak orretara edo onetara diñoela: “Euskera ez egizu ikasi”, ainbeste gizaldik, euskera berez ikasi dau gure erriak. Barriz euskera orrelan ikasi daben asko eta asko, erderazko ikastegira joan urtietan, ganera danak diñotsela “erdera errez zernaitarakoa dala”, orregaz guztiaz dagoz erderia buruan sartu ezinda. Ortik ezagutu leike “euskeria gatxa dala geuk gura dogulako, eta ez berez gatxa dalako”. Errazoi biribilla.

Bere asmoa, baiña, oiñarri sendo ta tinko gaiñean ipiñi nai eban, Bere kontsultak egin zituan ortaraako. Orduan olako auziak esku artean ekarrezan Gipuzkoako “ekauti” edo aldunai eta Arana-Goiri’ri erakutsi ondoren bere guraria, bene-benetan ekin eutsen bere lanari. “Esan diran eta beste euren antzeko usteak buruan igarota gero —diño—, erabagi neban, neure gurariak betetako oraingo naikoa dot euskerazko *abecedario* bat egitea”.

Eta esan dogunez, ari ta oni eritxia eskatu ostean, oso-oririk berak egiteari jarri zan. Entzun berari: “Neuk egitiari ez neritxon ainbeste, eta gaur Europatik alderatuta dagoan eta euskerazko liburutxu bat argitaratuta eukan bati, aitatu neutsan neure asmoa, baiña ez neban ezer aurreratu. Beste batzuri esateari ez neritxon eta neuk egiteko erabagi neban”.

Emen daukagu, beraz, Ormaetxea apaiza bere Agaka osotzen. “Lantxuari ekin neutsan —idazten dau—, eta amaitutakoan ikusi neban A, B’tatik *Alfabetu* greziarrak artu eban lez, eta A, B, C’tik egin neikela *Agakia* eta neure liburutxuari ezarri izen ori”. Etzan ibilli izen barri atzean, ezta erderazkoa artu be, berak atera eban bere asmoaren erraietatik eta or daukagu euskal *Agaka*.

Emen ba-dogu azkenez zerbait aipagarria, nik uste; bere gatz-ipurra be ez jako palta. Gaur dana dakigula-ta gabiltzanok jaramon aundirik egin ez arren, euskerea ta euskerazko gauzak gaur dagozan maillara ekarteko ainbat ezpata ausi bear izan ziran, aren edo onen apeta gaiztoz lan utsez eskuratutako irabaziok bertanbera izteko. Or euskal izenen istori zarra ta luzea, baita gure idazkera be. Gauzak gaur daukaguzanera ekarteko gobernuaren eta eleizearen aurka, ainbat luma ta arnasa irotu bear izan zan.

Au dala-ta, "atzenez —idazten dau— gauza bi autortu bear dodaz. Lenengoa. *Agakia* orrek geure siniste eta ekandu onak galtzeko irakatsirik ez daukela, Eleizeak ontzat emonik dagoelako. Ez dot uste, orrek lez, geure Eleizearen baia daukenik erderazko *Abecedario* guztiak. Bigarreno. Ume euskeldunari *Agaka-gaz* ariñago, bereriago eta obeto euskeraz irakurten irakatsi leiola, erderazko *Abecedario*-tik baño. Euskeldun umiari erderazko *Abecedario*-tik euskerarik ez erderarik irakatsi leikio bear dan lez, naita beste liburu beoritarikoak geitu". Auxe idazten eban Ajangiz'tik Amoroto itxi ta ara joan zanean ("Euskal Esnalea", 1909, 17'garren zenbakia, 107'gn. orrian).

Jakingarri jaku onezkero Arana-Goiri'k, "Lecciones de Ortografía del euskera bizkaino" deritxon liburuan, *Agaka*'ri buruz idazten dauskuna: "Para fijar la colocación de las letras en el alfabeto euskérico, he procedido comenzando por las más amplias y posteriores, anteponiendo en las de una misma región oral, las originarias a las originadas, y para darles nombres, me he fundado en las funciones que a cada cual en las voces les corresponden. Las vocales tienen este orden: *claras, oscuras y media*. Entre ellas se reparten las consonantes, divididas en grupos fisiológicos. Formando con los nombres de las primeras letras el del *alfabeto* o *abecedario* euskérico, resulta AGAKASK, AGAKASKA, o agregándole el sufijo colectivo *DI*, AGAKASKADI, AGAKASKADIJA; pero si se prefiere el nombre compuesto por el euskerágrafo bizkaino D. Pedro Antonio de Ormaetxea, cura párroco de Amoroto, y ese es AGAKA; AGAKEA, usado ya en una escuela, no tengo inconveniente en aceptarlo, ya que contiene los sonidos de las tres primeras letras. Es cosa curiosa que en los nombres de las letras hayan resultado PI y MI, como en el griego [*Obras Completas* (Buenos Aires, 1965), 826 of.].

Ormaetxea abadea Foru'n jaio zan 1862'an. Eleiz-karrera osotu ondoren, 1885'an apaiztasuna artu eban eta andik bost urtera Amoroto'n daukagu, abade-

laguntzaille leenengo ta gero, Pedro Gabiola, bertako txauburua il zanean, onen ordezeko parroku Orduantxe jaso eban euskal ikastegia, eta bardin goian aitatu dogun "Agaka" osotu. 1901'an Dionisio Gabiola da Amoroto'ko parroku ta Jose Iturraran Natxiondo laguntzaille. Zek sortu ete eban aldaketa ori? Ormaetxea Ajangiz'en daukagu urte orretan, bere eskola barria zala-ta erdi zigorturik zirudienez.

Alan be, pertsona bat naiz ideia bat egiaz maite dogunean, ez da lekurik ez zigorrik, ori aurrera eroatea galazoko dauskunik. Ementxe, bere asmoari atxikia, il zan Ormaetxea abadea, 1932'an. Goterkiko "Boletín Oficial"-an onela jorraileko zenbakian, ildakoen barri emoterakoa: "El día 18, don Pedro Antonio Ormaetxea y Ortúzar, Coadjutor de Ajánguiz, a los 70 años de edad". Eta Zornotza'ko EKIN'ek, 1932'gneko jorrailla, 25'an, "Gure Aizkidiak" titulupean: "Ormaetxea'tar Kepa A. jauparija il da. Eta bizi izan zan lez il be. Jaungoiko-zale bizi, Jaungoiko-zale il (G.B.). Bazkuna au sortu zan ezkerotiko bazkide ta idazlea genduan. Ainbeste idazti dira, or-emen, gure orrialdeetan, bereak. "Otarka" ixil-izenez ezkutauta. Ilgo zan baño, iru egun aurrerago ikusi genduan, eta gugaz eukazan kontu apurrak garbitu ondoren, "Jaungoiko-Zale"-n asmoetan "Ekin"ean ekiteko agindurik, beste mundurartean agur egin euskun. Jaungoikoak bere lan apostolotar guztien ordañez zeruan artuko ebalat, uste dogu. Baña, baldin bearrizanez ba'lego, bere arima alde, bazkide ta irakurle guztiak otoi dagin".

Bere idatzietatik ikusten danez, gizaseme urduria genduan, eta gizazale zindoa. Apaiza zan, Kristoren zerbitzari, erriari aragitua. Apaizari dagokionez maite eban bere erria, erri-maillan eta Jainko-maillan bizi izanik. Mailla biok, izan be, ezin daikeguz banandu, ez bereizi; bestelan, zugatzari erantsita bizi dan ontzorriaren antzera, ez leuke bere egitekoa beteko ta eriotza letorkio gaiñera.

Era berean, erria ta Jainkoa be, euskaldunak, Urtzi lengo denporetan eta orain barru daroagun Jainko-gosea ezin daikeguz, iñundik be, ito ta itzali. Au zoro antzera eguzkiaren argia itzali nairik itsuskika ibiltea litzakizu. Ondo ekian au Ormaetxea apaizak eta onetan alegindu jakun, erria ta Jainkoa, alkar-lotu, zaindu ta aurrera ateraten, beronek ditun edertasun guztiak indartu ta iraun-azoz. Orixe baita Kristoren mezulari edo apostolu baten zeregiña, erriaren on guztiakaz jabetu ta erriak zein bidez zindota ta zintzo jarraitu bear dauan erakusten saiatu.

AITA ONAINDIA

## SASI MAIXUKERIAK Noiz ALA ta noiz EDO?

Nire gaurko sasi-maixukeria goiko alkartitezaz izango da.

Gaur egunean euskeraz entzun eta irakurten diran eta nik ezkerreko begiagaz begiratzen dautsadan okerkeria bat, ALA ta EDO sarritan txarto erabiltea da, bataren ordeztu bestea esatea ta idaztea.

Bear izan ezker txarto esandako eundak esaldi emen ipiñiko neukez, baiña bietako amar eta amar agertuko dodaz luzeegi ez izateko; danak txarto dagoz alkartitz kontuan nire ustez. Egilleen izen eta guzti doaz auziari garrantzi geiago emoteko, ia bein argitzen dogun arau zeatzak emotea zailla ez dan kontu au.

Lenengo amar esaldietan txarto dago ALA; EDO eroan bear dabe ondo izateko. Ta beste amar esaldiak EDO daroe, baiña txarto; ALA eroan bear leukee.

“Ta zuek zaitutegu gure aurren ama ala amagai” (Lizardi).

“Bat ala bestea hautatu beharko litzateke horien iduriz” (Villasante).

“Etxeak erretzea ala ez erretzea niretzat berdina da” (Zatarain).

“Izkuntza baten giarra mintza bide izan ala ez izanean datza” (Aita Berriatua).

“Zer da, Jauna, ezker ala eskubitar izatea?” (Bordari).

“Domukeria edo kapitalismoa, lantzean pizka bat moztuaz, geldi-geldierez lez lurrera jausiko dala diñoen sozialistak, tentel ala maltzur andi batzuek ei dira” (Jon Eguzkitza).

“Gazte oiek euskaldun hutsak izango dira ala beste hizkuntzaren bat ingurukorik edo ez ingurukorik dakitek, bereaz gainera” (Koldo Mitxelena).

“Olerkari danari, berez datorkio alako goi arnasa, asmo, intuziño, begikaldi ala bihozkada” (E. Erkiaga).

“Bitatik bat: ‘mendiak’ liburuak ez ditu ezagutzen ala ‘album’ zer dan ez daki” (Gaztañaga).

“Nork ez du bere izena zeruetaraino igo ala inperuetaraino jetxi?” (Latiegi).

“Ez dizut katolikoa zeran edo ez galdetuko” (Don Manuel Lekuona).

“Ez dakit laburra edo iraunkorra den horren behar ordua baiña dala diot presatua” (P. Larzabal).

“Mutillak aguazillari, zaindariari ziria sartu eutsen edo ez... geldi bedi ori kapela baten” (A. Zubikarai).

“Eztekiat benetan edo txantxetan ari aizen” (Ataño).

“Hala ere galdetu behar da egunkari batek interes jakin batzuren erantzun behar duen edo benetako suertatzen ari den errealitatearen isladapen” (A. Lertxundi).

“Palteatzen den arazoa da esabotearen laguntza horrek eskatzen duen prezioa ordaintzea merezi duen edo ez” (P. Aristi).

“P. Aristi’k edo Basarri’k nork ote dauzka irakurle geiago” (Txomin Garmendia).

“Nik ez dakit Hasenfus diruadatik edo bere ideiek beharturik arituko zen” (J. Sagastizabal).

“Ez dakit horrela pentsatzen zuenean Zestoan mediku ote zegoen, edo oraindik Madril kaztizoan paseatzen zen, ez dakit orduko baserritarrak plazako petrillean jolasean ikusteak edo Madrilgo zapata garbitzale eta barkilleroak paseatzen ikusteak holakorik esatera bultzatu ote zan” (Maite González Esnal).

“Idazten asten naizen aldiro alako kezka bat sortzen zait barne barnetik h’kin edo gabe idatziko ote dut?” (Bordaberi).

Auzi au antxiñakoa da. Orduko idazle batzuk bein be ez eben erabilten ALA alkartitza; Mogel’en Peru Abarca’n eta Iztueta’ren Gipuzkoako Dantzak liburuetan EDO dator beti, ALA bein be ez. Ezta geroagoko Kresala’n be.

Aitatu ditudan idazleak lez orduko guztiak EDO bakarrik erabili ba’lebe, auxe dala erderazko alkartitza euskeratzen daben jator bakarra esango neuke, ta ALA geroago sortutako barrikeria bat. Baiña ez; orduan be eza-guna zan ALA. Idazlerik geienak alkartitz biok erabilten zituen; eta ez edozelan, baktokari egokionean baiño. Alantxe Axular’ek, Añibarro’k, Bartolome’k, Uriarte’k eta abarrek.

“Lenago edo geruago, modu batera, edo bestera, guchiago edo guejago dantzetan dan olguetiac, ezdauca gatzik, ezdauca gustoric” (Fray Bartolomé).

“¿cein dirian chaarrago, Biguiria, ala Sarauba?” (Fray Bartolomé).

“naiago dituzte bertzeren onak zuzen edo makur artu” (Axular).

“Baldin utz bazaneza harri handi bat eskuetarik, nora othe lioake, goiti ala behiti?” (Axular).

“; ce, bearbada, beraganic dago esquegirik dindilica zure betico zorion, edo zorigaisto guztia” (Añibarro).

“; eta eztaqui guertatuco jaconez Cerua, ala Infernua” (Añibarro).

“Bi gauza oyetatic ¿cein deritxazu miragarriagoa? ¿piztea ala inguma biurtzea? (Iturriaga).

“Belar omanea eta samurra eta irusta churia edo gorria agitz dira onac bazcatzeco” (Iturriaga).

“Gauza bi onetatic, ¿cein derichazu miragarrijagua? ¿biztutia, ala chiribirija biurtutia?” (Uriarte).

“Bedar piña ta samurra eta irusta zurija edo gorrija dira guztiz onac ganaduben jatecotzat” (Uriarte).

Orduko idalzeak be utsak egiten zituben noizean bein. Uriarte’k eta Iturriaga’k erdal esaldi bat euskeratzean batek ALA darabil eta besteak EDO.

“Caria dauquen ala ez, ezagututen da sarturik zatichu bat binagretan” (Uriarte).

“Carea daucaten edo ez, ozpiñean zaticho bat sartu eta ezagutzen da” (Iturriaga).

EDO ta ALA alkartitzak erabiltean egiten ziran utsez konturatu zan Azkue, eta bere Iztegian eta Morfologia Vasca’n berba egin eban auziaz. Iztegian olan diño EDOri buruz:

“Se abusa de él haciendo usurpar el puesto de ALA y ZEIN o NAI, NAIZ”.

Eta Morfologia Vasca’n, iztegian esandakoa be sartuaz, olan diño:

“De ALA se ha hecho algún abuso en nuestros días a partir de Arana Goiri”.

Ikusten danez, antxiña, sarritan erabilten eben EDO, ALAren tokian; eta baita geroago be geure egunetaraíño, AUSPOA’ko liburuetan ikusi geinkeanez. Ta orretara oituta gagozalako uts ori ondo esandakoa ba’litz lez ar-

tzen dabe gure belarriak. Baiña gaur egunean kulturako jendea alderantzizko jokera artzen asi da; idazleak, eskola-maixuak, komunika-bideetako itzlariak eta olakoak erdi baztertu egin dabe EDO ta bear danean eta sarritan bear ez danean be bai, ALA sartu. Ta euskeraz geien berba egiten daben jendeari arrotz egiten jakoz orrelako esaldiak. “Euskalerrria il ala biziko burrukan dabil” ta antzeko esaldiak, txarto-txarto esandakoak, min emoten daukue belarrietan.

Goiko esaldi ori ta antzekoak ondo esandakotzat artzen dituenen ustez, EDO, sinonimuetan (a) ta gauza bat edo bestea aukeratzea bardin danean (b) bakarrik erabili bear da:

a) “Biertik aurrera izparringiak edo periodikuak 50 laurleko balioko dau”.

b) “Berdin zait ardoa edo sagardoa edan”.

Ta ez; EDO, zeregin geiagotarako da, alkarti biak erabilten zituen antziñako idazleen liburuetan konturatzen garanez.

Nire ustez auzi oneri arauak ipinteko, ALA noiz erabili bear dan esatea da errezena. Ta jakiña, Peru Grullo’rkin diñot: ALA eroan bear ez daben guztiak EDO eroan bear dabe.

ALA, zuzeneko itaunetan (A) ta zearkako itaunetan (zeozelan esateko) (B) erabili bear da bakarrik.

A) “Zer nai dezute, Barrabas ala Kristo deritzan Jesus?” (Leizarraga).

B) “Ez dakit berba egin ala mutu egon” (Arrese Beitia).

Emen oar oneik egin bear dira goiko orreiaz.

A) Itauna alkartitzari buruz danean, esan dan lez, ALA eroan bear dau. Baiña esaldi batzuk osorik artuta itaunak diran arren, itauna ez da izaten alkartitzak lotzen dituan berba bietatik bat aukeratzeko egindakoa, beste zerbait jakiteko baiño ta alakoetan EDO eroan bear dabe. Ara alako esaldi bat:

“Noiz ediren zinitugun guk gose edo egarri”? (GERO).

Or ez da itauntzen gose ala egarri izan zan, ez; modu orretan “noiz” arkitu zan baiño. Ta itauna, alkartitzak lotzen dituan berbai egindakoa ez dalako, ez daroa ALA, ez da artzen itauntzat alkartitzari buruz.

B) Bestea. Esaldi orrek erderaz “si” daroa (erderaz inkisitiboa edo olako zerbait dana).

“No sé si hablar o estar callado (mudo)”.

## EUSKERA

Baiña "si" ori baldintzakoa danean, EDO eroan bear dau, olan:

"Aita biar edo etzi etorten ba'da, Bilbo'ra oster bat egingo dogu; geroago etorten ba'da ezin joan izango gara" = "Si papá viene mañana o pasado haremos un viaje a Bilbao; si viene más tarde no podremos ir".

Olantxe, zuzeneko itauneko ta zearkako itauneko esaldiak bakarrik eroan bear dau ALA; beste guztiak EDO.

Ta amaitzeko, era guztietakoak zelan esan bear diran sailduta ipiñiko doguz, Axular'eri artuta.

**BAIEZKOAK; ITAUNIK BAKOAK = EDO**

"eta orduan edireiten gaituen arauaz, emaiten deraku sekulako zorthea, ona edo gaixtoa".

**BAIEZKOAK; ITAUN USIÑA DABEENAK = ALA**

"Beraz huneletan, handia izanen da alaber, eta itxusia izen saindu haren, banoki, premia gabe eta egiaz ala gezurrez mintzo den konturik egin gabe erabiltzeaz egiten den bekhata eta deskortesia" (... sin reparar *si* se habla con verdad o con mentira).

**EZETZKOAK; ITAUNIK BAKOAK = EDO**

"eta diferentzia hau eztago ez guztia bekhatu egitean edo ez egitean".

**EZETZKOAK; ITAUN USAIÑA DABEENAK = ALA**

"zeren ezpaitakigu zeñez zarratzen den kontua, lehenbiziko egiten dugunaz ala bigarrenaz" = "porque no sabemos con cuál se cierra el cómputo, si con el primero que cometemos o con el segundo".

**ITAUNAK; ITAUNA, ALKARTITZAK  
ALKARTZEN DITUAN GAUZA BIETATIK ZEIN  
AUKERATZEN DAN JAKITEKO EGITEN  
EZ DANEAN, BESTE ZERBAIT JAKITEKO  
BAIÑO = EDO**

"Zer probetxu, untzia betherik eta kargaturik bela ongi egiteaz, baldin portura baiño lehen edo portuan gal-tzen bada?".

**ITAUNAK ZUZENEAN = ALA**

"Baldin utz bazeneza harri handi bat eskuetarik, norat othe lihoake, goiti ala beheiti?".

KAMIÑAZPI

# ZER

## ALDIZKARIA

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

**ARPIDETU ZAITE!**

**ZER**

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14-2.º - BILBAO-1

## IPUIN ESKE (1.º SARIA)

Iru neska mutiko. Abadiño'ko gaztetxoak. Irurak ikasle, alkarregaz lagun eta argiak, asko ikasi gura dabena. Laster Gabon osteko opor-aldia dala-ta, andereñoak egun orreitarako lana, irurak bardiña, ipiñi dautse; iruren artean lan bat egin bear dabe, amar orrialdekoa, eskolan gero danen aurrean irakurri bear ko dabena.

Pozik dagoz irurak. Eskolatik etxerakoan, Sorne'k —au da neskatoaren izena— bizi-bizi bota dautse mutiko biai:

— Ipuinak jakoz andereñoari atsegin. Atzo be guztioi gogoko izan jakun bat irakurri euskun; adi-adi egon giñean guztiok ari entzuten, euli baten dunduriorik be entzuten ez zalarik.

— Orduan, Sorne, nai don irurok ipuin polit bat egin daigun? —Koldo'k, mutikoetatik zarrenak.

— Orixe! ipuin bat, geuk asmauta, eroan bear dautsa- gura andereñoari. Eta arek irakurriko dau ikasle guztien aurrean. Au poza! —gaiñeratu eban bigarren mutikoak, Kepa'k.

Esan eta egin. Zapatua zanez, biaramonean, Gaztelu' rako bidea artu eben ipuiñetan. Antxe bizi zan, entzun ebenez, gizon zartxo bat, ipuin kontetan trebea. Markel eritxon. Sorne'k sarri entzun eutsen gurasoai axe zala Abadiño'n eta inguruetan ipuin-zalerik onena; aren aotik sagar umotua adarretik lez jausten zirala ipuin eta koplazelebreak.

Or doaz ba ez tapa-tapa bizkor baiño eleiz osteko zidor estuan gora iru gazteak. Nirñir dagitse eguzkiak izpi- gori piñu-adar artetik emen, pago-besanga gaiñez gero. Neurritsu darabile biriki-auspoa, eta ez dira nekatzen. Poztasunak orpo-atzean egoak jarten dautsez, antza.

Matierna aldetik gorantz yatorkun bidera eldu dira. Emen bai ibilli atsegin! Udalaitz, Anboto, Untzillaitz, Mugarra, Ezkubaratz dabez eskuman... Aurrez aurre Kanpantzar, Gaztelumendi, Intxorta, Gazeta... Oiz eta inguruak etxe zuri-gorritz lilluragarri, ezker aldetik... Gain ontatik oro ikusten. Udazkena da-ta, eder ta sotil jantzita izadia: orlegi piñuak, baiña gorrixka ta ori areitz, pago, intxaur, gurbiz urritz eta gaiñerako zugatz-tantai ostozigarakordunak.

— Au ederra! —diño Koldo'k.

— Zoragarria! —beste biak.

Eta aurrera ekioen leiaz.

Baserritarrak itxura danez bazkal-ostekoa egiten; ez da iñor agiri, ezker-eskumako ikuspegi nasai ederra ezik. Ekar-eroan ziarduan aizeak meeme, alboko piñu-orri arte zurmurka. Otoitz-deia an becan eleizako kanpai astunak. Erdi itxirik daukiez etxe banaketako ate-leioak. Gaztelu

azotegian ez da iñor agiri; lau-bost mutiko urrun samar, eguzkia artzen.

— Zein ete dogu ipuin-zalearen etxea? —Koldo'k.

— Or andra bat oillotokitik onuntz —Sorne'k—. Onetek jakingo dau, ta berari itanduko dautsagu.

Onuntz datorren andreaz topo egin dabe. Eta irurak batera lez:

— Entzun, andre! Ipuin billa gabiltz gu. Lan bat osotu bear dogu Gabonetako opor-aldian, andereñoak aginduta; ipuin lan bat, andra. Zuk al dakizu ipuiñik. Emen, Gaztelu'n, ipuin asko dakizuela esan dauskue.

Eta emakumeak erantzun:

— Nik ez, ez dakit ipuiñik; baiña or, aurreko etxean daukazue gizon urtetsu bat ipuin asko dakizana; beste neska-mutil batzuk be, sarri etorri oi jakoz ipuin eskan. Or dozue bera, solorantza doala.

Eta aregana jo dabe ipuin eskaleak.

— Arratsalde on, aitita! Zer moduz?

— Ederto, eta zuok alperkerian, ezta?

— Ez ba, lanean gabiltz! Opor egunek laster gaiñ doguzan arren, lanean jarri gaitu andereñoak, eta lan ori alik ondoen egin nairik, ipuin billa...

— Ipuin billa, e!

— Olantxe, aitita! Ikasleak gara gu, eta andereñoak eskatu dausku Gabon-Urtebarri-Erregen bitarteko oporretan, nagiarri emonak egon barik, ipuin polit bat idatzi daigula iruron artean. Abadiñoarrak gara, eta ezagutzen zaitugu zu eleizan ikusita: zuk ba-dozu ospea ipuin-kontari legez.

— Eta zelako edo-ta nun inguruko ipuiña gura zeunkie?

— Al izan ezker, bertokoa oba. Sarri olgau oi dogu guk Muntzaraz auzoan. Bada an, dakizunez, Muntzaraz etxe-torrea; guk ez dakigu aren istori zeatzik. Baiña askotan entzunak gaituzu Anboto'ko Damearen zerbait.

— Ederto! —aititak—; zatoze barrura eta jarri neure zizalluan.

Sukalderatu ziran irurak eta erreskadan jarri. Bertatik asi jaken aitita Anboto'ko Damiaz mintzatzen. Koldo'k, arkatza atera eban, ipuiñaren zati batzuk jasoteko. Errezago egingo jaken gero ipuin osoa ariltzea.

— Munduan asko lez —asi zan aitita—, Naparroa'n bazan errege bat. Bere erreñua lenago Bizkairaiño luzatzen zan, Muntzaraz be errege arena izanik. Emengo mutillak be ba-zituan zerbitzari. Eta Afrika'ko baltzak, ez gitxi.

## SARIKETA

Oneitariko bat guztiz maltzur-okerra zan, ezigatx-eziga-txa; ezin eban ezetara be bere esanera ekarri: lagunak jo, zaldiak ondatu, armak ostu ta erregea bera bildurtuta eukan. Bein, bere aserre bizian zin-egin eban: "Neure alabea emongo dautsat ezkontzaz, baltz au azpiratzen dau-nari".

— Eta...? —Kepa'k, artega.

— Abadiño'ko gazte batek —Muntxazkoa bera— azpi-ratu eban baltza. Eta erregeak zin-egiña bete eban. Abadiñotarra, errege-alabakin ezkondu ta bertan jarri zan, Muntxaraz torrean, bizi izaten. Seme-alaba bigaz ugaritu eben sendia, Aitor zan seme nagusia ta Mari bigarrena. Ondo zainduak eta guri ta txeraz aziak izan ziran, eguzki epeletakoak esan oi danez. Etxalde ta diru askoren jabe ziran. Umetan diru-irritsik erakutsi ez arren, gero ogetalau ta ogetabi urteko egin ziranean, Mari batez be, oso diru-zaletu zan, eta geroagoko erentzia zala-ta, sarri izan eroiezan neba-arrebok eztabaida, liskar eta goraberak nai-gabetsuak.

Bein, ixillean, Mari'k eta onen neskameak egiteko zita-la asmatu eben: Aitor iltea. Mari'k, olan, gurasoen erentzi osoa jasoko eban.

Jai batez, etxeko guztiak Anboto bizkar aldera joatea erabagi eben. Oiñez joan ziran, Atxarte'tik gora, Urkiola menditik zear, Polpol'en atsedean alditxo egiñik, Larrano'ra igon eben. Amabi t'erdiak joak zirala-ta, emen bazka-ria, ondo be ondo jan-edanez. Gazteak, gurasoak baiño geiago ekin eutsoen edanari. Aitor orditua ez baiño zerbel samar egoan.

Ikuspegi biñaiñeko lekua da Larrano. Azpian dauka-zuz Aspe, Martzaa, Arrazola, Atxondo ibarra. Aruntzago Apata, Elorrio, Abadiño, Durango aldea ta Oiz azpiraiño erri atsegiñak. Gurasoak, tokia benetan eder bait zan, begirari egokitu ziran aitz-gaiñean. Leun baizen gozo jotzen eban aizeak, andik eta emendik. Giro oba-eziña.

Iru gazteak, Anboto gaiñera igon gurata, arako bidea artu eben erabagitsu; arri-mokor ezpan-zorrotz eta zugatz-txapar artetik aratuko ziran. Neskamea ta Mari-malkar aiturik, asmo doillorra irauliz joiazan gorantz. Laprast eta jagi, oni oratu ta a itxi, arin ez baiña gora egiñaz ebiltzan. Gaiñ-gaiñera orduko, leku lau bat arkaitz artean; emen geratzen dira irurak, azpian euken Arrazola'ra begira. Amiltegi ikaragarria! Zur ta erne doillorrak... Erdi-mozkor, nekatua etorren Aitor'i bultzada bat eta gazte gaixajoa ba-doa, arrimokor bat iduri, amiltegi utsera.

Ango txilia ta guzur-garrasiak! Jatsi ziran biak gorantz egiñiko bidea berantza ber-egiñak; negar-zotinka, itxu-

ra emon naiez: kontatu eutsen gurasoai jazo zana. Onein naigabe gordiña! Urrengo egunean jaso eben trokaraiño narras etorri zan Aitor gaixoaren gorpua. Odolustu ta maillatuz betea. Abadiño'ko Andra Mari ermitan izan ziran illetak.

Txarto egiñaren arra, baiña, izate barruan daroagu, salatzaile bizkor. Kontzientziak ez eban Mari baketan izien; neba illa eban salatzaile, ezten zorrotz beti biotzean sastaka. Ezin ezelan be ixil-azo barne-didar gogaikarria: berak il eban Aitor.

Ez jan, ez lo, gerora Mari'k ez eukan pozik, ezta bake-rik. Gau baten, olaxe penatua, gurasoak lotaratuta gero be, sukaldean aurkitzen zan bere neskameagaz. Nebaren eriotza ezin iñolaz be burutik uxatu. Orduak joan jakezan egoera orretan. Eta azkenez biak, Mari'k eta neskameak, deabru-aldrea ikusi eben tximinitik bera sukaldera txirrit egiten. Andik iru egunera il zan Mari; neskamea, barriz, andik alde egiñik, iñok ez eban jakin norantz joan zanik.

— Ipuin tristea, aitita —oiu irurak ao batez.

— Bai, gaztetxoak, orrela da! Guk, baiña, asko ikasi geinke berau entzun edo irakurriaz. Ipuinak beti dabe mamiña, batzuk alaia ta beste batzuk nai-gabetsua. Guretzat jakingarri beti.

— Norbere barruaren deia! —Sorne'k.

Mari dei-didar ori entzunez dabil oindiño be. Zoratua dabil errukarri. Bere nebaren ots ori bota eziñik, egazka, Anboto'tik Oiz'era sugar biurtua. Urte askoz orritz jantzi ta osteria uldu dira Gaztelu inguruko zugatzak, ordotik ona diñot, baiña Mari or dabil egaz ta egaz. Koba-zulo bi daukaz gordeleku lez, bata Anboto'n eta bestea Oiz'en, edo obeto esan, mendi orren oiñean, Sarrimendi'n. Anboto'n dagoela, Anboto'ko Damea esaten dautsagu, eta Sarri'n bizi danean, angoak Mari-Urrika edo Burrika deritxoe.

Gure egunetan ba, ez dira gitxi, Anboto'tik Oiz'era, erratz edo giñarre gaiñean, sua dariola joaten ikusi dabenak. Eta ipuin au amaitzeko, nik entzuna:

Ori olan ba'da,  
sar daitela kalabazan;  
eta urten daiala  
Zaldibar'ko plazan.

— Millesker, aitita!

— On egin daizuela.

ONAINDIA'tar SANTI





**ESKORIATZA**

Leniz Araneko erri polit eta baketsu bat da Eskoriatza. Leniz'ko Arana lau errikin osotuten da: Arrasate edo Mondragon, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Salinas de Léniz edo Gatza.

Erri oneik DEBA errekaaren ertzean eta bere ZEAR aurkitzen dira, eta onek emoten dautsie bizia, alaitasuna eta egarria kendu.

Lau erri oneik Bergara'ko AUZI-Barrutian dagoz eta Eskoriatza, aurkitzen da bertatik amabi bat kilometrora.

Gipuzkoa'ko Erriburutik 84 kilometrora eta Gazteiztik 27'ra dago.

Egin bear aundietan, estutasunetan, gaixo larrietan, Donostira joan bearrean, Gazteizera joaten dira, ururrean dagolako.

Bere erri-inguruak oneik dira:

Sortaldetik Aretxabaleta eta Oñate, Sartaldetik eta Iparaldetik Aramaio, eta Ego-aldetik Kutxebarri eta Arlaban mendiak.

Lau errietatik lurzabalena bera da, Arrasate eta Aretxabaletak baiño zabalera geiago dauka.

Erria, DEBA ibai luzeran aurkitzen da eta batuta dago.

Kaleak eta enparantza nagusia ta Udal-etxea, errien erdian dagoz. Arrilanduaz eginda Udaletxea.

Orain erriko etxeak ondo egiñak eta politak dira.

1860'garreneko urtean, 2.140 bizilagun ebazan eta orain 4.200 inguru. Gure guda ezkerero OLA asko zelan sortu ziran, erri au bi bider geitu da; baiña Aretxabaleta eta Arrasate IRU BIDER geitu dira, kanpoko jente asko eldu diralako lanen billa.

**NOIZ ASI ZAN ERRIA**

Leniz beste errian lez, ez dago argitasunik noiz sortu edo argiratu zan, bakarrik dakigu ANTXIÑEKOA dala.

Ez dago zein gizalditan jaso eben LEKAIME etxe bat, Mercenarias deritxona; baiña bai amargarren Mendean ERAIKI zala gaixo etxe bat YON MONDRAGON AZARRETAZABAL'ek aginduta.

Lenengo Eleiza-nagusia menditontor batean egoala, errikan kanpora, amabigarren mendean, eleiza ori itxi bertan basaeleiza lez, eta erriaren erdi-erdian jaso eban erriak oingo eleiz ederra, ikusgarria.

Leniz'ko lau erriak batuta edo bat eginda aurkitzen ziran 1.200 urte arte. Orduan Arrasate banatu zan beste iruragandik.

Andik 70 urtera alde egin Gatza'k eta Aretxabaleta eta Eskoriatza'k iraun eben batuta 1.760 urte arte.

Aldi onen guztian BAKE gitxi euki eben erri biak.

Nor nagusitu edo izan gura eben, eta orretarako asareak, gorrotuak eta GUDA zorrotzak eta gogorak euki ebezan.

Biak bardin antzerakoak zelan ziran, ollar bi ibiltzen diran antzera batabestearen aurka, egon ziran.

1374'garreneko urtean ENRIKE BIGARRENAK EMOITZA egin eban Eskoriatza ta Aretxabaleta emonaz D. Beltran de Guevara Oñatiko Jaun Nagusiari.

Orduan gudak eta ango okerkeriak akabera bakoak izan ziran.

Aldi aretan IRAULKETA eta Asarre izugarriak izan ziran Guevara'ren aurka eta euren arteko arerioaren aurka.

Sasoi artako EDESTIA edo KONTAIRA lotsagarria eta oso zikiña da. Emengo oraiñagoko gudea baiño naste aundiagokoak izan ziran.

**ESKORIATZA'KO AUZOAK**

Errikan kanpora basetxe edo auzo oneik dagoz, mendietako aldapetan banatuta.

DEBA ibaiaren ezkerretik: Apozaga, Guellano, Marin, Mazmela eta Zarimutz. Eta DEBA ibaiaren eskuematik: Bolivar eta Mendiola. Apozaga da politena eta biziteko egokiena.

Zergaitik? Etxe guztiak LAUTARA BATEN batuta dagozelako.

Euskalerrian olako auzo batuak gitxi izango dira.

Auzo orretan Illerri oso polita dago; berebil-berebilla eta zuri-zuria. Jente asko ara elduten dala diñoengotarrak, bera ikustera. Beste auzoetako etxeak banan-banan dagoz aldapetan, zugatz artean, menditarrean galduta.

**ALTXORROZ edo AITZORROZ**

Eskoriatza'k EDESTIAN gauzarik politena daukana, ego-aldean AITZORROZ mendi tontorra da.

Zer da gauza ori edo tontor ori?

Da mendi tontor bat, AITZ bat oso luzea, ZUTUNIK ipinita lez.

Edestiak diño lenago gaztelu bat egon zala an.

Itxura edo TANKERA, diñoen lez, Romanoak egin-dakoa.

Nai ta orain aurrerapen aundiak izanik, egazkiñak kendu ezkerero, an gizon bat naiko da, beste amar millari aurka egiteko eta austuteko.

# ERRIAK

Bertatik ikuspegi ikaragarria dago, Leniz Aran guztia ikusten da ondo, bere oñetan dagolako.

Mendi tontor orretan aurkitu dira KUTSU edo ondakin batzuk aintxinekoak.

Asko aztertu barik lenago sortuten ziran (neu be ibilita nago 1930 urte inguruan), Gizonen azurrak, morrionen zatiak, espaten zatiak, orduko suizkilloen zatiak eta DOZENERDI Ziderrezko Romanoen diru.

Oneik gure lenagoko ziderrezko pesetearen tamaño-koak.

## ERRIKO GIZONEN LANA

Bertako gizonen zer egiña lenago lurgitza edo nekaritza izan zan.

Lurrak landu eta artzen zana: Garia, artoa, arbia, indabak, bedarra zelaietan eta basoetan aretxak, pagoak eta abar, eta etxe inguruan zugatz igaleak ugari.

Republika denboratik ONA lan orreik apur bat aldaturik dagoz.

Gure GUDA ostean sortu ziran OLA edo FABRIKA asko, perrotxikuak mendian lez, zerbait LANGINTZA ekienak, alkartuten ziran, edozein gauza egiten eben, eta geienari ondo urten.

Zergaitik? Erbestetik ezertxo ere, ez zalako sartzen gure errietara.

Nai txarra egin, nai ona egin, dana saltzen zan eta ondo.

Orregaitik danak aurrera joan ziran. Gero gerokoak izan ziran. kanpotik zerbait sartzen asi zanean.

Orain langilleen lana MIXTOA da. Lan batetik bizi diranak gitxi dira.

Etxe geienetan nai kalekoak, nai baserrikoak, lan baten baiño geiagotan jokutzen dabe.

Kaleko langilleak OLAKO lana amaituta gero geienak baratz zatien bat daukie edo beste familikoen bat dendan edo beste lan-postu baten. Baserrikoak edo lurginaik etxean itziten dabez zarrak, eta gazteak or doaz ankak apurtuaz kalera lanean.

Orduan KALEKO SARIA osorik eroaten dabe KAI-XARA eta onelan, leenagoko baserri zatarrak, jauregi etxe eder biurtu dira.

Oraingo OLA askok lur jotea, kiña egitea, Eskoriatzan ez da orrenbeste nabaitu edo sentitu. Or inguruan ez dago KRISISIK. Jenteak leenagoko bizimoduan jarraitzen dau.

Nai etheen baten bateron bat langabe gelditu, ez dago goserik eta ez diru bildurrik. Batetik edo bestetik datorrelako.

## ESKORIATZAKO GIZON OMENTSUAK

Euskalerrian beti izan dira erri geienetan gizon biotsuak bulartsu eta beldur-gabeakoak; ta onezaz ganera MENTURA-ZALEAK.

Ez dira emengo lurrak nasaitzeko edo zabaltzeko ibilli, Ez. Batzuk ibilli dira euren MENTURA-ZALEA betetzeko, euren ASMOA, ori zalako; beste asko euren izena zabaltzeko eta beste asko euren biotzeko berotasuna beste biotz batzuetan sartzeko.

Españeko EDESTIAN irakurten dogu emengo ABI-ZENAK mundu zabaleko toki guztietan, bai Españeko Rekonkista gudan, bai Amerikatara agertu zanean, bai munduari EGOERA edo BIRA osoa emon jakonean, bai Filipinasen, bai Terranoban, Amerika sortu baiño ASKOTXO lenego, abar eta abar.

Orri au bete neike izen ta abizen lerro akaberabakokin. Alperrik zertan gogoratu, ba-daukazuez izen orreik edozein idazkitan EDESTI liburuetan.

Emen jarriko dodaz errian jaio ziranak eta lanpostu nagusienetariokoak euki ebezenak, bai Euskalerrian edo Euskal errietan kanpoan.

D. FRANCISCO DE ESTEIBAR: Maestro de Kanpo eta Buruzagi edo Kapitan nagusia Filipinasen.

D. IÑIGO GASTAÑADUY, D. FRANCISCO GAZTANADUY'ren, "Maestro de Kanpo".

D. MARTIN ALDAY: Buruzagi edo Kapitan betikoa Pasajesko REAL espetxean.

D. JUAN BAUTISTA AGUIRIANO, Buruzagia, Alemania'ko ordaitzan edo embajadano lana egiten ebana.

D. PEDRO URIBARRI, *Santiago*'ren jaskidun zalduna.

D. JOSE GARRO, itxas-lurreko gudalburua.

Eta askenez, ondiño oraintsuko gizona (ABADEA), organo-JOTZAILLE, bere askenengo urteetan bere errian egon zan baiña leenago Euskalerriko Gotzain-Eleizetan organulari izandakoa, bere ABIZENA: GOROZARRI.

## ONDORIOA .

Erritxu onen GORESPEN eta goraketan esan bear dot, beti izan dala erri BAKETSUA eta LANGILLEA.

ZERGAITIK? Iraulketa eta erriko naste-borraztetan, ikusten dalako erriaren NORTASUNA.

Emengo GUDA denboran ez zan izan errian ez IL-LIK, ez espetxean egon iñor bere eritxiagaitik ur-urrean, BASATI eta itsu-zatarrak izan arren.

Iru urteotan jentea bakean eta bere lanean bizi zan. Eta guda ondoan neu be an izan nintzan zorionez ASKOTAN, dan danakin berba egiten neban, iñungo asarrerik ikusi barik, danakin jolastu eta danakin ABESTU euskal abestiak eta barre egin. Une oso alaiak igaro nebazan euren artean.

Nai falangista izan, nai abertzalea izan, an ez egoan borrokarik, ezin ikusirik eta ez gorrotorik.

Neureztat doirik aundiena erri batentzako, PAKEA da.

Onelan JARRAITU dagiala jenteak urte askotan.  
ZORIONAK.

ETXEBERRI'tar ISIDOR

**EUSKERA ABERASTU**

BURU berbaren ondorengoak edo seme-alabak asko dira. Ona emen batzuk bakarrik, Muxika eta Azkueren iztegitik artuta.

Burudun = prudente.

Burutsu = talentudo, de gran memoria.

Burubako = irreflexivo.

Buruarin = casquivano.

Buruandi = cabezón (insulto).

Burugogor = terco.

Burukoi, burgin = egoísta, comodón.

Burusoil = calvo.

Burugorri = fatuo, necio.

Burubero = exaltado, fanático.

Buruon = listo.

Buruargi = inteligente.

Buruaste = preocupación, problema.

Buru lan = trabajo intelectual.

Buru min, buruko min = dolor de cabeza.

Burubide = decisión, determinación.

Burualdi = ocurrencia, dicho gracioso.

Buruilketa = suicidio.

Burutapen = intención, idea, concepto.

Burtandu = ocurrírsele a uno.

Auxe burutandu jat = se me ha ocurrido esto.

Burubabes = casco.

Burujabetza = independencia, libertad.

Buru batzar = junta directiva.

Burukide = miembro de la junta directiva.

Mai-buru = presidente de la mesa.

Uriburu = capital de un territorio.

Gudariburu, gualburu = jefe del ejército.

Azaburu = repollo de berza.

Artaburu = mazorca de maíz.

Astaburu = cabeza de burro (insulto).

Gariburu, galburu = espiga de trigo.

Mendiburu = cima del monte.

Aizpuru = punta de la peña.

Asteburu = final de semana.

Iturburu = comienzo de la fuente, manantial.

Astegun buruzuri = pleno día de labor.

GOIKOETXEA IÑAKI

**LUGO'ko IPUIN ERRIKOIAK**

- Augustin Zubikarai'ren liburu barria.
- Galizia'ko erri-ipuiñak euskeraz.
- Batzuk emengo ipuiñen antzekoak.
- Geienak ipuin gaziak eta alaiak.
- Jesus M. Zubikarai'ren marrazki egokiak.
- Sei ipuin-mota: Aolkudunak, abereenak, irrigarriak, danetarikoak, bartsotakoak eta mendi ta gazteluzarretakoak.
- Guztiz 228 ipuin irakurgarri.

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

# Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,  
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,  
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,  
batez be, emoneko berba lez daroan  
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.  
Itxasoaren oldarra gelditzen,  
gizonaren neurribako  
alegiña:

**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS  
**VIZCAINA**

**Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.**